

10/2015 UDALEKO OSOKO BILKURA

2015EKO ABENDUAREN 16EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEORDEA

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Pello Estanga Lasa (EH Bildu taldea)
Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Idoia Baraizar Otaño

Anoeta Hiriko udaletxean, 2015eko abenduaren 16ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Izaskun Jauregi Saizar Alkateordearen Lehendakartzapean, eta Idoia Baraibar Otaño andrea, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro eta Francisco Berbel Perez zinegotziak ezin etorria adierazi dute lan arrazoiengatik, eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez du ezin etorria adierazi.

1.- 2015EKO IRAILAREN 28AN ETA AZAROAREN 23KO UDAL PLENOAREN BILKUREN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2015eko irailaren 28an eta azaroaren 23ko udal plenoaren bilkuren aktak irakurri eta aho batez onartua izan dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2015EKO IRAILAREN 21ETIK AZAROAREN 13A BITARTE, 424 ZENBAKITIK 493 ZENBAKIRA, HAU BARNE.

2015eko irailaren 21etik azaroaren 13a bitarte, 424 zenbakitik 493 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkateorde andreak, udalbatzakideak jakinaren gainean geratuz.

3.- IZASKUN JAUREGI ALKATEORDEA ORDAINSARIPEAN JARTZEKO DEKRETUAREN BERRESPENA.

Udalbatzak 2015eko abenduaren 1eko dekretua berresten du, aho batez, bertan Izaskun Jauregi andrea 2015eko abenduaren 1etik ordainsaripean jartzea onesten da eta honela dio:

“DEKRETUA

Anoetan, 2015eko abenduak 1.

Ikusita 2015eko ekainaren 16ko dekretu bitartez ebatzita, Pedro M^a Estaga Lasa, Udaleko Alkatea, ekainaren 13tik aurrerako ondorioekin -%100 lanaldiarekin, hilean 2500 € ordainsari gordinarekin- udal honetan lanean ari zela.

Ikusita alkatea, 2015eko abenduaren 1eko datarekin aldi baterako lan ezintasun egoeran dagoela.

Ikusita, 2015eko abenduak 1eko dekretu bitartez, alkatearen 2. alkateordea den Izaskun Jauregi Saizar andrea izendatu duela bere ordezkapenerako.

Kontutan hartuta, udalean une honetan dagoen egoera (lan asko, idazkari berria...) alkateak proposatu du alkateordea, alkatea dagoen baldintza berdinetan udalean lanean aritzea.

Dagozkidan eskuduntzak erabiliz, EBATZI DUT:

Lehena.- Izaskun Jauregi Saizar andreari 2015eko abenduaren 3tik gizarte segurantzian altan ematea Pedro M^a Estanga Lasa aldi baterako lan ezintasun egoeran dagoen bitartean,, hurrengo baldintzetan:

- Lanaldi osoan eta*
- Hilean 2.500€ko ordainsari gordina.*

Bigarrena.- Erabaki hau Udalbatzara eraman bere berrespenerako.

Honela agindu eta sinatu du Pedro Maria Estanga Lasa alkate jaunak eta nik bitarteko idazkariak fede eman”.

4.- ZABOR TASAREN ZENBAIT ERREZIBOEI BAXA EMATEKO PROPOSAMENA.

Udal Aurrekontu Orokorretako Likidazioetan onartutako **bajak obligazioetan**, zabor errolda kontzeptupean, 439,48 euroko erreziboak direla ikusirik.

Kontutan izanik ahaleginak egin arren errezibo horiek ezin izan direla kobratu eta 2012-02-14 dekretu baten bidez zabor tasaren erroldan Cheyenne Radikal Bikes, S.L enpresari baxa ematea onestu zela.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Jarraian zehazten diren Udal Aurrekontu Orokorreko Likidazioetan onartutako obligazioei, Cheyenne Radikal Bikes, S.L enpresaren izenean dauden 2010/01,2,3,4 eta 2011/1,2 hiruhilabeteko erreziboei baxa ematea, guztira 439,48 eurokoa.

5.- 2013 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak jakintzat ematen du 2015eko urriaren 16ko dekretua, zeinaren bidez 2013 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Anoetan, bi mila eta hamabosteko urriak hamasei.

Udal honek 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen txostena eta berau osatzen duen dokumentazioa ikusiri, eta bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena. - Udal honetako 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		747.582,70
2.- kobratu gaeko saldoak 2013-12-31n:		323.472,43
Aurrekontuko zordunak:	322.472,15	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.000,28	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		338.808,43
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	179.621,63	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	159.607,47	
- Aplikatu gabeko odainketak:	-420,67	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):		732.246,70
5.- Saldo kobragaitzak:		42.703,68
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		689.543,02
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		7.509,87
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		682.033,15

9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	317.896,12
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	- 9.085,13
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	-7.509,87
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	301.301,12
14.- Txertatu daitezkeen kreditu garakinak	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu garakinak	0,00
16.- Kreditu garakinak guztira (14 + 15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Hurrengo plenoari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Estanga Lasa alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman”

6.- EUSKARAREN EGUNAREN INGURUAN ADIERAZPENA

EH Bildu taldeak eta EAJ taldeak adostu dute honako erakunde adierazpena:

“ANOETAKO UDALAREN ADIERAZPENA.- Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan, Anoetako Udalak honako adierazpen instituzionala zabaldu nahi du.

Euskara, herritar guztion hizkuntza da, euskaldun egiten gaituena da, euskarak guztiok batu eta aberasten gaituen hizkuntza behar du, beraz. Anoetako udalak euskararen inguruan, adierazpen honen adostasun osoan oinarriturik, herritar eleaniztunak lortzeko pausoak egin nahi ditu.

Aurrerapauso garrantzitsuak egin dira euskararen normalizazio eta biziberritze bidean. Azken urte hauetan, euskarak hazkunde prozesua izan du, eta, neurri handian, biziberritu egin da. Hiru izan dira prozesu eredugarri honen zutabe nagusiak: herritar askoren engaiamendua euskararekiko, hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrek, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabak euskaraz hazteko aukera egin dutenak.

Anoetako Udalak 2015eko abenduaren 3ko euskararen Nazioarteko Egunean, euskarara hurbilzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi die, euskararenganako erakutsi duten atxikimendua eta hizkuntza hori ikasteko egin duten ahaleginarengatik. Euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen duten pertsona horiek, eta haien guzien gogoa, kemena eta ahalegina aitortu eta omendu nahi ditugu.

Anoetako Udalak berretsi nahi du herritar eleaniztunak lortzeko helburua, uste baitu eleaniztasunak eragin ona duela gure gizartearentzat, bizikidetzat demokratikoari eta gizarte-kohesioari begira. Bide

beretik, udalak erraztasunak bilatuko ditu euskararen ezagumendua helarazteko ikasi nahi duten guztiei.

Halaber, Anoetako Udalak konpromisoa hartzen du euskararen erabileran normalizazioan urrats sendoak egiten jarraitzeko. Aurrera begira, erabilera baita gakoa eta udalak hitzematzen du aukera berriak irekiko dituela euskara erabiltzeko, eta horretarako, errespetatuko dituela hiztun guztien hizkuntza-eskubideak eta euskaraz egiteko askatasuna.

Erakundeei eta herritarrei dei egiten diegu elkarrekin aurrera segitzeko. Euskararen aldeko egoeran euskara da, beste ezer baino lehen, hizkuntza garaikidea, berritzailea eta gaurkotua, gure gizarteak erabiltzen eta sustatzen jarraitu behar duena”.

7.- EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

EH Bildu taldeak eta EAJ taldeak adostu dute honako erakunde adierazpena:

“AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA – ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Anoetako Udalaren adierazpena.- MOZIOA

Azaroak 25a “Emakumeen aurkako biolentzia desagerrarazteko nazioarteko eguna” dela eta, Anoetako Udal Batza honek, emakumeek biolentzia matxista guztietatik libre bizitzeko espazio komunak eraiki asmoz, herri eta lurralde seguruak lortzeko, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala oinarri izango duten bizikidetzaren eredu libreak errealitate egiteko, jendarte egituratze parekidea lortzeko finean, herri konpromisoa sakontzeko ardura hartzen dugu; halaber, guztion konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok, lehenetsunezkoa behar du izan bere agenda politikoan eta jardun instituzionalean, biolentzia matxistarik gabeko herri eta lurralde libreak eraikitzea, eta jendarte parekidea babestea.

Hego Euskal Herrian, 2015. urtea amaitzear dagoen honetan, nabarmen egin du gora biolentzia matxistak. Ugariak ari dira eraso sexistak nahiz eraiketak. Baina baita zeharkako biolentzia matxistak ere. Eguneroko mikrobiolentziak barneratuak eta normalizatuak daude jendarte eredu patriarkalaren baitan.

Jendarte eredu ezinbestean aldatu behar dugu biolentziarekin amaitu ahal izateko. Biolentzia horiek guztiak, makroak zein mikroak, desagerrarazteko modu bakarra, berau sostengatu, zuritu edo babestu dezakeen jardun oro alboratuz lortuko da. Ezinbestean hartu beharreko konpromiso hau jendartearen osatzen dugun eragile guztiok hartu behar dugu.

Hori dela eta, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, Euskal Herria feminista eta ekitatibo baten aldeko gure aldarrikapenak inoiz baino ozenago entzun behar dira, hori eraiki ezean ezinezkoa izango baitaigu egiazko demokrazia erdiestea”.

8.- BEHIN BEHINEKO IZAERAZ, 2015EKO URTARRILAREN 26AN ONARTUTAKO ANOETAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA DOKUMENTU OSAGARRIAREN ONARPENA

2015eko urtarrilaren 26ko Udaltzaren akordio bitartez Anoetako Hiri antolamenduko Plan Orokorrari behin behineko onarpena eman zitzaion.

Behin behineko onarpena egin zegoenean ikusi zen Hiri antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) zati bat aldatzeko beharra (Modesto-Enea, Arautegi Orokorreko 119 eta 120 artikulua, 1-8 PLanoak), eta aldaketa hori izapidetu zen: 2015eko irailaren 28ko Udaltzaren akordio bitartez hasierako onarpena eman zitzaion, izapidetzen ari zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuaren aldaketari.

Aipatutako aldaketa jendurrean jarri zen dagokion bezela, 2015eko urriak 22tik abenduak 9ra bitartean:

- GAO, iragarkiaren data: 2015eko urriak 14koa.
- Gara egunkaria: 2015eko urriaren 9koa.
- Berria egunkaria: 2015eko urriaren 9koa.
- Diario Vasco egunkaria: 2015eko urriak 21koa.

Jendurreko erakustaldian ez da alegaziorik egon.

Aztertu da Udal arkitektu aholkulariak 2015eko abenduaren 11-ko datarekin egindako txostena, bertan alegaziorik egon ez denez, Plan orokorraren dokumentuaren aldaketa onartzea eta espedientearekin jarraitzea proposatzen du.

Aztertu da Idazkariak 2015eko abenduaren 14ko datarekin egindako txostena.

HORiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, eskubidez eta izatez korporazioa osatzen duten bederatziz zinegotzietatik bertaratu diren sei zinegotzien aldeko botoarekin, hau da legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko botuekin :

Lehen.- Behin behineko izaeraz 2015eko urtarrilaren 26ko Udaltzaren akordio bidez onartutako Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa dokumentu osagarria onartzea.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren espedientearen aginduzko txostena eskatzea, espedientearen Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali baino lehen, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.

9.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erregu garaian, EAJ talde politiko bozeramailea den Kepa de la Iglesia jaunak galdetzen du ea nola dagoen 2014 urteko Aurrekontuaren Likidazioa.

Bitarteko idazkariak erantzuten du nahiko aurreratua dagoela eta urte bukaera baino lehen ixten saiaturiko direla Betean enpresaren laguntzarekin.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateordeak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.